

MATRIKULARAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA (TELEKOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAREN INGENIARITZAKO GRADUA)

Ikasle hori:

Lehenik eta behin zorionak eman nahi dizkizugu Bilboko Ingeniaritza Eskolako Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Graduan onartua izateagatik. Ongietorria egin nahi dizugu eta eskertzen dizugu gure Eskolan etapa akademiko berri honi ekiteko emandako konfiantza.

Zure prestakuntzan eragin positiboa izango duen berrikuntza garrantzitsu baten berri eman nahi dizugu. Aukeratu duzun Gradua berritzeko eta modernizatzeko prozesuan dago gaur egun. Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Graduaren bertsio berria 2026/27 ikasturtean hasiko da ematen, zure bigarren urtearekin batera. Bertsio berri horrek egungo planaren ibilbide eta aukera guztiak mantentzeaz gain, irakasgaien banaketa hobetuko du eta telekomunikazioen arloko teknologia aurreratuenei buruzko praktika eta eduki eguneratuak izango ditu.

Plan berrirako trantsizioa errazteko, zuretzat propio egokitutako lehen maila diseinatu dugu. Horri esker gradu berriko bigarren mailan zuzenean sartu ahal izango zara, izapide gehigarririk egin eta irakasgai osagarririk egin gabe.

Matrikula:

Matrikula aurrez aurre zein online egin ahal izango duzu. Modalitate ez-presentziala aukeratzen baduzu, prozesuan urratsez urrats lagunduko dizun gidaliburua duzu erantsita.

Hizkuntza:

Irakasgaiak gaztelaniaz edo euskaraz egin ahal izango dituzu, zuk aukeratuko duzu. “Gailu eta Zirkuitu Elektronikoa” irakasgaiak ingelesez ere ikasteko aukera duzu.

Irakasgaien eskolak gaztelaniaz eta euskaraz goizeko ordutegian ematen dira. Ingeleseko eskolak goizez ere ematen dira, baina irakasgaiaren laborategiak eta mintegiak arratsaldean izaten dira.

Ordutegiak eta informazio osagarria:

Talde guztien ordutegiak honako esteka honetan kontsulta ditzakezu: [Ikasturteko ordutegiak - Bilboko Ingeniaritza Eskola - UPV/EHU](#)

Ezinbestekoa da matrikularako jarraibideak arretaz irakurtzea. Hemen dituzu: [Industria Teknologia Ingeniaritzako erregistro laguntza eskuliburua](#)

Izan dezakezun edozein zalantza argitzeko hemen gaituzu.

Jaso ezazu gure agurra